

Donostiako Aste Nagusia → Euskal dantzak

Euskal dantzak, mundura begira

'Argizaiola' ikuskizuna taularatu du Donostiako Gero Axular dantza taldeak; ikazkin baten semearen istorioa azaltzen du

Euskal dantzez gozatzeko aukera dago iluntzeetan Donostiako Konstituzio plazan

Iñaki Agirre Donostia

Arin-arinare pausoak dira, baina klakea dirudi zenbaitetan. Dantzariak euskal jantziekin egonagatik, zapatekin daude, eta luraren aurka astintzen dituzte oinak, klakean egiten den gisara. Hogeitabat lagun ikusten dira oholza gainean aurrera eta atzera ko-oreografia bizia osatuz. Euskal dantzak ukitu moderno batekin eta bestelako dantzekin uztartu zituen Gero Axular dantza taldeak, astelehen iluntzeetan Donostiako Aste Nagusian eman zuen emanaldian. Konstituzio plaza leporaino bete zen, eta han bildutako ikusleak eta dantzariak gustura geratu ziren.

Zortzietan da hastekoa ikuskizuna, eta hogei minutu lehenago nabari da giroa Konstituzio plazan. Oholtzaren aurrean jarritako eserleku ilaratan apenas dagoen lekurik, eta jendea inguruan zutik jartzen hasia da. Leku ona hartu dutenetako batzuk dira Rosa Otxe eta Patxi Hernando. Adinean aurrera joanda daude, baina piraten zapi beltza eta kamisetak daramatzate soinean. «Abordatzen egon gara lehen, gu ere piratak garelako, eta orain, hona gozatzera», dio Otxek gogotsu. Ohitura dute euskal dantzen iluntzeko ekitaldira hutsik ez egiteko, haiek ere hasi baitziren euskal dantzak ikasten duela hiru urte. Abestu ere egiten omen dute, Donostia Kantuz-en. «Dena, Dena egiten dugu», jarraitu dute.

Ikazkin baten istorioa

Zortziak puntuan direnean hasi da emanaldia. Txorimaloz jantzitako haurrak atera dira oholtzara musikaz lagunduta, atzean base-ri baten irudia dutela. *Argizaiola* ikuskizuna eskaini behar dute gaur. Ikazkin baten semearen istorioa kontatzen da, eta haurtzaroko eta gaztaroko bizipenak erakusten dira. Nola haurra zela aitak egindako txondor batean ezkutatzaren, eta nola ezkutaleku horretan egoten zen bere al-

txorrek: txorimalo batekin, eta amonak emandako argizaiolarekin. Urteak pasatu, eta herrira jaisten da lanera ikazkina. «Gernikako bonbardaketak harrapatzen du, eta herria nola berpizten den ikusten da gero, aurrera goazela», azaldu du Juan Luis Unzu-

Haurrak erakartzeko, berritu egiten ditugu dantzak gure ikuskizunetan»

JUAN LUIS UNZURRUNZAGA
Gero Axular taldeko burua

«Mutirik falta dira herrietako dantza taldeetan. Ditzosozko futbolarengatik»

INMA URZELAI
Ikuslea

runzaga taldeko buruak. Aurrera joate horrek mugaz kanpo zabaltzarekin ere badu zerikusia. «Gure dantzak ere ireki daitezke mundura».

Horixe da Gero Axular dantza


taldearen ezaugarri nagusietako bat. Dantzaren bidez istorio bat kontatzen dutela. Euskal dantzak gaurkotzen saiatzen dira, gainera. «Haurrak erakartzeko, berritu egiten ditugu euskal dantzak ikuskizunetan. Betiko euskal pausoak izan arren, beste ko-oreografia batzuk erabiltzen ditugu», esan du arduradunak. Berritu bakarrik ez, galdutako batzuk berreskuratu ere egin dituzte. Dantzarekin batera, argiari, musikari, eszenografiari ere garrantzi handia ematen diote. Gero Axular dantza taldea Axular ikastolako haurrek osatzen dute. Haurrak eta gurasoak. Eurrak baitira taldea sortu eta taldearen martxa eramaten dutenak, boluntario gisara. Guztira, 200 haur eta gaztetxo inguru dituzte, 6 urtetik hasi eta 25 urte bitartera arte. *Argizaiola* ikuskizuneari, 60k parte hartzen dute.

Ikusleak adi-adi ari dira begira. Haurrak lurrean eserita daude, eta gurasoak oholza gaineko seme-alabei argazkiak eta bideoak ateratzen dizkiete lehen lerroetan. Tarteka, batzuek musikari jarraituz, kantuan hasten dira. «Andre Madalen, Andre Madalen...». Ikuskizun bizia eta alaia osatzen dute dantzariak. Buruhandiak ere atera dira taula gainera, eta, tarteka, iratxoz moztututako neskatza bat jartzen da oholtzaren ertzean eta kantuan egiten du.

Euri tanta batzuk hasi dira, ha-

Euskal dantzak berritu egiten dituzte Gero Axular taldekoek, eta argiari, jantziari eta taularatzeari ere garrantzi handia ematen diote ikuskizunetan.

JON URBE / ARGAZKI PRESS



lako batean. Aterki batzuk ireki dira, eta esku orriak jarri dituzte zenbaitetik buru gaine. Gutxi izan dira eserlekuetatik altxatu eta alde egin dutenak. Ikuskizunak erakartzeko gaitasuna duela nabari da. Ongi prestatuta etorri da Amparo Zubia, Oñatititik. Aterkiarekin. Astea pasatzen ari da senarrarekin. «Oso ederra da

ikuskizuna. Modernizatuta daude euskal dantzak». Baiezkoa egiten dio Jesus Bikuña senarrak albotik. Dantzaria izandakoa da. «58 urterekin eskaini nuen nire azken emanaldia. Hemen, Donostian, Oñati izeneko plaza inauguratu zutenean etorri ginen herri- tik. Oso oroitzapen onak dauzkat».



Donostiako Konstituzio plaza gainezka egon zen asteleheneko dantza emanaldian. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Donostiako Aste Nagusia → Euskal dantzak



Oroitzapen onak gordeko dituzte era berean Gero Axular dantza taldeko gaztetxoek hemendik urte batzuetara. Berezia izaten da zalantzarik gabe Aste Nagusiko emanaldia. «Normalean antzokietara etortzen ez direnak hurbiltzen dira gu ikustera, eta esker-tzen da. Jendeari asko kostatzen zaio 3-4 euro ordaintzea, nahiz eta kulturarengatik izan», nabarmendu du Unzurrunzagak.

Atzerrian ere izan dira udan. Alemania, Kroazia, eta Danimarkan dantzatu dira. Autobus gidaria hantxe dago zutik, ikusleen artean. «Malkoei ezin eutsi nago gaur ere. Haur eta gaztetxo guztiak ezagutzen ditut azkenean, eta ederra da», dio Mikel Gurrutxagak. Inma Urzelai emaztea ere hunkituta dago. Begiak bustita ditu. Dantzaria izandakoa da, eta guztia asko aldatu dela dio, koreografiak eta besoak askoz gehiago lantzen direla orain. «Mutirik falta dira herrietako euskal dantza taldeetan. Eta Gero Axularren ere gauza bera gertatzen da. Ditzosozko futbolarengatik», kexatu da.

Euskal dantzek ez dute etenik izango aste osoan, Konstituzio plazan. Bihar Goizaldi Dantza taldea dantzatuko da, eta ostiralean, berriz, Trebeska.

Oskar Estanga eta Odei Barroso bertsolariek 'Bat Batean munduko musikarekin bertsotan' saioa eskainiko dute gaur gauean Konstituzio plazan; musika eta bertsoa uztartuko dituzte emanaldian.

Musika eta bertsoa lagun

I. Agirre Donostia

Betidanik izan da bertsolaria eta musikaria Oskar Estanga, eta modu naturalean uztartu ditu biak orain. Emaizta *Bat Batean munduko musikarekin bertsotan* ikuskizuna izan da. Konstituzio plazan ikusi ahal izango da, gaur, 23:30ean. Oskar Estanga eta Odei Barroso ari-tuko dira bertsotan, eta Estanga bera, Manex Albira, Beñat Arce eta Jorge Cordon arduratuko dira musikaz.

Duela ia urtebete hasi zen *Bat Batean* ikuskizuna gorpuzten. Bertso saioetan maiz erabiltzen zuen gitarra Estangak, eta musikarekin lotutako emanaldi bat sortzeko gogo zuen. «Kantuan ari-zen gara, baina letra inprobi-

satzen dugu», azaldu du Estangak. Horretarako, bertsolariak eta aldi berean musikariak diren lagunak bilatu ditu. Migel Mari Eloseg, Etxahun Lekue, Aimar Karrika eta Jon Martinekin jardun du bertsotan orain arteko saioetan. Odei Barroso izango du bidelagun gaurkoan estrelnakoz. 22io rapa euskaraz egiten duen taldean dabil Barroso, eta badu esperientzia musikaren munduan. Saio berezia izango da, gainera. «Odelekin lehendabiziko aldiz kantatuko dudalako eta musikariak izango ditugulako zuzenean alboan. Musika grabazioen gainean funtzionatu dugu orain arte».

Gai librean jardungo dute, koplata gehienetan. «Oso bizia eta azkarra da kopia, eta bat-batera-



Oskar Estangak Jon Martinekin Arrasaten eman zuen saio bat, sergio

ko interesgarria; soka batetik tiraka hasi eta ez dakizulako non bukatuko duzun». Doinu ezagunen gainean inprobisatuko dute, batik bat: Bob Marleyn reggaea, Kubako sona edota Argentina-ko tangoaren gainean.

Bertsolarien erronka nagusia, abesti bakoitzaren erritmora moldatzea dela adierazi du Estangak. Musikariak gabe isiluneei eustea errazagoa da bertsotan, eta saio honetan, tokatzen denean hasi egin behar da abesten. Horrek berak hitzari indar eta magia berezi bat ematen diola uste du Estangak.

Taularatzea da ikuskizunaren beste ardatzetako bat. Bertsolari klasikoaren ohiko irudiarekin apurtu nahi dute. Taula gaineke zurruntasun horrekin. «Kablerik gabeko mikrofonoarekin joaten naiz, eta musikarekin gorpuzta mugitzea gauza naturala da niretzat. Gorpuzta mugituz emozioak adierazten ditugu». Hainbat saio egin dituzte dagoeneko —Bartzelonan ere bai tar-tean—, eta gaurko emanaldiak ilusio handia egingen dio Estangari. «Errespetua ematen digu, baina, aldi berean, ohore bat da Donostiako Aste Nagusian egotea».